



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko urriaren 3ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko urriaren 3an, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : FALXA Odile.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine.

Deialdiaren eguna : 2023ko irailaren 29a

Afitzatze eguna : 2023ko irailaren 29a

3. ERABAKIA: DIRULAGUNTZA ESKAERA HERRIKO WEBGUNEAREN IRISGARRITASUNARENTZAT *(9.1 nomenklatura– Herrien bestelako eskumen esparruak)*

Auzapezak Herri Biltzarrari jakinarazi dio herriko webgunea ez dela elbarritasun egoeran dauden pertsonentzako irisgarria edo eskuragarria. Alta, webgune publikoek irisgarritasun betebeharra dute.

Herri Biltzarrari proposatu dio herriko webgunea irisgarri bilakatzeko urraspideen abiatzea. Urraspideak hainbat urrats ditu:

- Irisgarritasunaren aditu batek webgunearen azterketa egin behar du
- Zuzendu behar diren zuzentzea,
- Zuzenketen kontrolatzea.

Auzapezak adierazi du, webgunearen irisgarri egiteko lanak Euskal Hirigune Elkargoaren Irisgarritasun parte hartze funtsekin eta Lurraldeetako Bankuaren laguntza funtsekin diruzta daitekeela.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ONARTU DU**, herriko webgunea irisgarri bilakatzeko lanen abiatzea,

- **ESKATUKO DITU**, Euskal Hirigune Elkargoaren Irisgarritasun parte hartze funtsak, Lurraldeetako Bankuaren funtsak eta beste dirulaguntza oro,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, gai horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapideen egiteko.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 14
Balizko boz kopurua : 14
ALDE : 14
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko urriaren 3an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/10/10ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/10/10ean.